



“50 años de...La mujer, cosa de hombres -RTVE”.Isabel Coixet.

Zigor-kodeak, 1944-1963 aldian, adulterio-kasuetan senarrak emaztea hiltzea onartzen zuen, edo aitak 23 urtetik beherako alaba eta haren senargia hiltzea, alabak ezkondu aurretik sexu-harremanak izanez gero

1. Dokumentalean azaltzen diren iragarkietan emakumeek duten rola aztertu. Nolakoak dira gaur egun?
2. Zein da bideoan entzun ditzakegun abestiek helarazten duten mezua?
3. Zertan aldatu dela uste duzu gaur egun emakumearen rola telebista eta gizartean? Zertan hobetu beharko luke?
4. Zer azpimarratuko zenuke dokumental honen inguruan

1999an hasi ziren egiten eraildako emakumeei buruzko estatistikak. Ana Orantes hil zuten arte (telebista-programa batean hartu zuen parte senarrak erreta hil baino astebete lehenago), emakumeen aurkako indarkeria ez zen orain bezain agerian uzten. Gaur egun, Espainiako legedia, Indarkeriaren aurkako lege integrala ezarri zenetik, munduko aurreratuenetako bat da. Hilketak, ordea, emakumeen aurkako tratu txarren icebergaren tontorra baino ez dira.

“Beldur barik” web-orritik egokitutako materiala: www.beldurbarik.org